



❖ EZKER ABERTZALEA

Giza katea gaur, legalizazioa eskatzeko

'Giza kate erraldoia' egiteko dei egin du gaur Hernaniko Ezker Abertzaleak, legalizazioaren alde. Plaza Berritik abiatuko dira, 13:00etik aurrera.

EZKER Abertzalea legalizatzeko eskaera egingo dute gaur Hernaniko kale-etan, Hernaniko Ezker Abertzaleak deituta. Euskal Herriko hainbat herritan egingo dute ekitaldi berbera, eta dei egin zaie herritarrei azaltzeko eta parte hartzeko. Asmoa da, giza kate erraldoia osatzea, ahalik eta luzeena. «Herritarrek eskubidea daukatelako, beraiek nahi duten aukera politikoa egiteko». Giza katea, gaur, 13:00etan, Plaza Berritik abiatuta. ||

❖ ANTZERKIA

'Hiru bi zast, egizu jolas', goizean

Haurrentzako antzerkia izango da, gaur goizean, 11:00etan, Biteri kultur etxean. Lanku Bertso Zerbitzuen eskutik, *Hiru bi zast, egizu jolas* ikusteko aukera izango da. ||

❖ SAN JOAN KONPARTSA

Santo Tomas eguna gaur, Plaza Berrin

San Joan Konpartsak antolatuta, Santo Tomas eguna ospatuko dute gaur, Plaza Berrin. 11:00etatik 14:30etara Taloa eta Txistorra izango dira. Arratsaldeko 18:30etan erromeria, Patxi Perezek gidatuta. Santo Tomas bihar Sorgintxulon izango da, eta asteartean, Goiz Eguzkin. ||

◆ ERREMONTA

Binakako final haundia, gaur

Galarretan urteko egun haundietako bat dute gaur: Binakako Txapelketa Nagusia, Azysa torneo. Urriza eta Etxeberria IIIa ariko dira, Zeberio IIIa eta Ionen kontra. Jaialdia 16:00etan hasiko da eta txapelketakoa, bigarrena. /6

GAUR KRONIKAN

Prentsaurrekoa: Atez Ateko Hondakin Bilketa /2

Prentsaurrekoa: Ernesto Merino Aralarreko hautagai /2

Laburrak /2

Irrigoenea etxea /3

Kirolak: Futbola, errugbia, saskibaloia, judo, boleibola... /6-7

Eskela /7

AEK /8



Hernani, 85 orrialdetan

ARETO Nagusia leporaino zela, 2010eko Urtekaria aurkeztu zuten atzo arratsaldean. Hernaniri buruzko 18 artikulua dakarzki urtekariak, eta 85 orrialde ditu. Hernaniko historia, natura, artea, gaurkotasuna... biltzen ditu liburuak. Eginu etxeari buruz hitz egin du Luix Errazkinek, Galarreta Jaialairi buruz Urko Apaolazak, Sorbeltz txoriei buruz Iñaki Sanz-Azkuetak... Pertsonaiegi indako erreportajeak ere badira, Pilar Azurmendiri egin diona Jon Odriozolak, adibidez. Atzo banatu egin zituzten urtekariak. Eskuratu nahi duenak, Hernaniko liburudendetan dauka, 8 euroan. ||

OUTLET EXPOSIZIO BERRIA

Keunka®
MUEBLE RUSTICO

ORDUTEGIA
Ast.-Ost.
09:00-13:00
15:30-19:00
Larunbata
09:00-13:00
15:30-20:00

**ALTZARIAK ETA ARGITARIAK
AURREKO DENBORALDIETAKO
"Stock"-a**

OUTLET !!

OUTLET !!

**MUNDU GUZTIKO ALTZARIAK
DENA KOSTU PREZIOAN !!**

OUTLET !!

OUTLET !!

OUTLET !!

OUTLET !!

Pol.Ind. ZUBIONDO - NAVE 4B-1 (20120, HERNANI). Tel: 943 33 10 81

www.keunka.com

❖ ATEZ ATEKO HONDAKIN BILKETA



Olatz Urrutibeaskoa Hernaniko ingurumen teknikaria, Aitor Etxeberria Oiartzungo alkatea, Marian Beitialarrangoitia Hernaniko alkatea, Imanol Azpiroz Usurbilgo zinegotzia eta Jon Kortajarena Garbitaniako ingurumen teknikaria.

«Lapatxeko gaitasuna kolokan ikusten dugu»

Usurbil, Oiartzun eta Hernaniko Udal ordezkari eta teknikariek organikoaren kalitatea eskasa dela gezurtatu zuten atzo eta Lapatxen hutsuneen berri eman zuten.

«Hondakin organikoa Lapatxeko plantan konpostatzeko gaitasuna kolokan ikusten dugu, prozesuan ematen diren arazoak nabariak dira eta konposta plantak egun jasotzen duen organiko kantitatea tratatzeko gaitasunik ez du», azaldu zuen atzo Jon Kortajarena Garbitaniako ingurumen teknikaria. «Harrera gunean bildutako organikoa tapatu gabe egoten da eguraldiaren eraginpean, nahastu egiten dute atez ate eta 5. kontenedoretik bildutakoa, fermentazioari dagokionean, behar adinako temperatura lortzeko arazoak daude eta jarduerari dagokionean Lapatxek 208 T tratatu ditzake hila-betean eta irailean bertan 440 T sartu ziren», izan ziren emandako datu batzuk.

Datu horiek prentsaurrean eman zituzten atzo Usurbil, Oiartzun eta Hernaniko Udal ordezkari eta ingurumen teknikariek, organikoaren inguruko analisia azaltzearekin batera. Eta Gipuzkoako Hondakin Kudeaketa entitateak

esandakoa gezurtatu zuten, hau da, Atez Atekoa egiten duten hiru herrietan bildutako hondakin organikoa kalitate eskasekoa dela. «28 kontrol egin ditugu eta kalitate bikaineko organikoa da. Gainera, etxeko lanak egin ditugu eta zalantzan egon zitekeena bereizi dugu Lapatxera eramane gabe». Eta salatu zuten kalitate baloraketak hiru herrietako ordezkari teknikorik gabe egin direla, eta bertara joan eta gertutik gaia ezagutzeko eskaera egin denean ez zaiela erantzun.

«Herritarren lana zapuztu nahi dute»

Marian Beitialarrangoitia Hernaniko alkatea azaldu zuen lan on bati zigor politikoa eta ekonomikoa jarri nahi diotela «Atez Atekoa begitan hartu duten erraustezaleek. Organikoaren kalitatea txarra dela esanez, herritarren lana zapuztu nahi dute; guk zoriondu egin nahi ditugu». Interes politikorik gabeko azterketa egitea eskatu dute. ||

18an legalizazioaren alde giza kate erraldoia

Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela esaten da. Zer esanik ez, irudi hori ehunka herritarrek osatzen badute, oinarri-oinarrizko aldarrikapen baten bueltan: proiektu politiko guztientzat aukera berdina. Proiektuarekin bat egin ala ez, Ezker Abertzalearen egitasmoak, gainerako pare, legezko izan behar duela aldarrikatzera goaz. Etorri zu ere.

Zilegia bai, legezkoa ez. Espainiar Estatuak botatoko

enbidoari aurre egin behar izan dio Ezker Abertzaleak urte hauetan guztietan. Legalizazioaren bidetik erakundetatik kanporatu, baztertu, zapaldu, zokoratu egin nahi izan dute, bere jarduna isilarazi, ezabatu. Halabeharrez, aldian aldiko zailtasunak gainditu eta garai berrietara etengabe egokitze gai izan da, bere jardunarekin proiektuaren zilegitasuna berretsiz, eta bidelagun berriei eskua luzatuz.

Asko gara, gero eta gehiago, ezker abertzalearekin, bere proiektuarekin bat egin ala ez,

❖ ARALAR ALDERDIA



Xabier Peñagarikano, Ernesto Merino eta Rebeka Ubera, atzo.

«Lanean ari gara, Hernanin kandidatura ateratzeko, 2011n»

Ernesto Merino izango da Donostialdeko zerrendaburua, Diputaziorako, 2011ko hauteskundeetan. Eraitza ona espero dute.

HERNANIN kandidatura ateratzeko lanean ari direla azaldu zuen atzo, Aralar alderdiak, Biterin egin zuen prentsaurrekoan. Prentsaurrekoan, Ernesto Merino aurkeztu zuten, Donostialdeko zerrendaburu gisara, Gipuzkoako Diputazioko Batzar Nagusietarako. Aralar alderdiak emaitza ona espero du 2011ko Udal eta Foru Hauteskundeetan, eta politika ezkertiarra eta abertzalea egin-gin duela adierazi zuen.

«Inkestek, 5 batzarkide»

Xabier Peñagarikano, Ernesto Merino eta Rebeka Ubera izan ziren atzo Biterin, eta adierazi zuten, hauteskundeetan 5 batzarkide lortzea posible dela. «Inkestek hala eman dizkigute; orain 2 batzarkide ditugu eta gehiago lortzea espero dugu». Politika

abertzalea eta ezkertiarra egitea du helburu Aralarrek, atzo adierazi zuten: «EAJk eta Hamaikabatek politika neoliberala egin du Diputazioak, %37,8 errepideetara bideratzen da; %31 gizarte politikara. Horren aurka egin behar da. Gizarte politikak sendotu nahi ditugu, eta zerbitzu publikoen pribatizazioei mugak jarri nahi dizkiegu. Eragile sozial eta sindikalekin harremanak sakondu...»

Euskarak aurrekontuetan %20ko beherakada izan du bi urtetan, eta hori onartezina dela dio Aralarrek, euskaltzaileen ikuspuntutik.

Aralarrek proposatuta bi aldaketa izan dira azken legegintzaldian, esanguratsuenak: Lurraldebus txar-telean %40ko deskontua, eta 10 urtetik beherako umeek dohainik bidaiatzea. ||

➡ Jasota Bezala

18an. Gure herrian ere proiektu politiko guztientzat aukera berdintasuna aldarrikatzen duela adieraziko dugu, giza kate baten bidez. Eta horrela, herriz herri kate guztiak elkartuz, irudi erraldoi bat osatuko dugu, esanahiz betetako irudia.

Finka ditzagun oinarriak, oinarri demokratikoak, eta has dadila partida. Aro berri baten atarian gaude. Elkartzen gaituen horretatik abiatuz, indarrak batu eta goazen aurrera.

Agustin Ezponza Irizar
Juanjo Urija Zubiarrain

❖ KONTRAKANTXA GAZTETXEA

Brindisa, bazkaria eta kontzertuak gaur

Urteurreneko festa erraldoia izango da gaur Kontrakantxa Gaztetxean. 12:00etan brindisa eta trikibertso-poteoa izango da; 14:00etan bazkaria eta monologoa; eta 21:00etan karaokea eta kontzertuak. ||

❖ GABONETAKO KONTZERTUA

Ozenki Abesbatza eta Musika Bandaren emanaldia gaur

Gabonetako kontzertua eskainiko dute gaur Ozenki Abesbatzak eta Hernaniko Musika Bandak. 19:45etan izango da Milagrosan. ||

❖ BIGARREN ESKUKO AZOKA

Produktu onak prezio onean erosteko aukera gaur Atsegindegin

Bigarren eskuko azoka izango da gaur Atsegindegin, 10:00etatik aurrera. Produktu onak prezio onean erosteko aukera izango da. Bertan, Sahararen aldeko postu bat ere jarriko da. ||

❖ KARABEL

Gaur eta bihar Mus eta Tute Txapelketak

Belkara, Karabeleko auzo elkarteak antolatuta, Mus eta Tute Txapelketak jokatu dira asteburuan. Gaur musean arituko dira eta bihar tutean. Biak 15:30etan hasiko dira. Egu-berriko zozketa ere egingo da. ||

❖ SAHARA

Karabana solidarioa maiatzera atzeratu da

Urtero, abendua eta urtarrilan Sahararen Aldeko Euskal Karabana antolatu izan da Saharara produktuak bidaltzeko otsailean. Udaletik jakinarazi dutenez, aurtengoa maiatzera atzeratu da, eta produktuak datorren urte hasieran bilduko dira. Lehen-tasuna orain, lurralde okupatuetan bizi duten egoera eta eskubide urraketak salatzea dela azaldu dute. ||

❖ ERRIBERA - HERNANI

Lore Festa gaur

Portutik Karabelera bidean, lore haztegia eta denda jarri du Segi Hiru enpresak Erribera-Hernani ize-nekoa, eta ezagutzeko aukera izango du gaur, Lore Festa antolatu baitute 10:00etatik 14:00etara: azaltzen den guztiari lore bat emango zaio. Bertan, gaitz mentala duten pertsonak ari dira lanean. ||

❖ UDALA-ARAU SUBSIDIARIOAK: ALEGAZIEN ERANTZUNA

Irrigoenea ez dute botako, eta Papelera del Norte ere ez

253 alegazio aurkeztu zaizkio Arau Subsidiarioen Testu Bateratuari, eta horietatik %69 ontzat hartu dira, eta %29 atzera bota dira. Hirigintza Batzordean onartu eta gero, Udal Plenoak eman beharko dio azken onarpena, asteartean.

IRRIGOENEA etxea ez du botako Udalak, eta Papelera del Norte ere ez. Arau Subsidiarioen Testu Bateratuari 253 alegazio jarri dizkiote herritarrek, eta horietatik %69 ontzat jo dira, eta %29 baztertu. Hirigintza Batzordean onartu da azken proposamena, Gobernu Taldea eta Ezker Batuaren aldeko botuekin, eta beste alderdien kontrakoarekin. Orain azken erabakia, Udal Plenoak eman beharko dio, datorren asteartean, arratsaldeko 18:00etan.



Irrigoenea etxea ez du botako Udalak, eta Leokako ingururako planaren barruan geratuko da.

Papelera del Norte, 52 enpresa eta 200 lanpostu Gobernu Taldeak Hernaniko Kronikara bidali duen prentsa oharra dioenez, erabaki diren puntuen artean garrantzitsuena da Papelera del Norte ez botatzea. «Nahiz eta zonalde honetarako Testu Bateratuak proposatutako helburu eta antolamendu soluzioa hirigintza eta gestio mailan guztiz justifikatua izan, pentsatu dugu 52 enpresa eta 200 lanpostuen etorkizuna tartean izanda, merezi zuela beste behin

aztertzea, helburu nagusiarantz eutsiz eta beste bi batzeko modua eginez, gainera».

Tren azpiko pasabidea egingo dute zona horretan, baina Papelera del Norte bota gabe. Tren azpiko pasabidea egitea zen, hain justu, fabrika zaharra botatzeko arrazoietako bat. «Urumeako autobidea eta Galarretatik Urnietara garamatzen errepideko trafikoa bideratzeko Hernaniko erdiguneko auzuneengan aha-

«Hasierako arauak ziotena baino 309 etxebizitza gutxiago egingo dira, gehiegizko etxe asmoei muga jarri nahian».

lik eta gutxien eraginez, eta bide batez, Hernaniko auzoetarako sartu irtenak lagunduz. Teknikariek egin diguten antolamendu proposamen be-

rriak hau bermatzen du, Udalak kostu gehiago bere gain hartuta errepide berria egiteko, baina eraikina mantenduta», dio Gobernu Taldeak.

309 etxebizitza gutxiago Gobernu Taldeak azpimarratu duen beste puntu bat da, hasierako Arau Subsidiarioek baino 309 etxebizitza gutxiago egingo direla Hernanin; horietatik 264, Floridan. «Hori da, beste pausu bat, gehiegizko

etxe asmoei muga jartzeko».

«Irrigoenea ez botatzea ontzat jo dugu, baina ondarea zaintzeak gure helburuen artean darrari»

Irrigoenea etxea ez da botako. Gobernu Taldearen ustez, eztabaidan zuzenak ez diren gauza asko esan dira, eta berriek ez dute jakin gizarteratzen Erret Bidearen babesak duen garrantzia. Ondarean gehiegi galdu du Hernanik, Gobernu Taldearen ustez, «urteetan agintea izan dutenek behar besteko baliorik eman ez diotelako».

«2007ko Arauak txukuntzen lan izugarria»

Testu Bateratu hau egiteak lan haundia eskatu dio Udalarari, prentsa oharra dioenez. «2007ko Berrikuspenak airean gauza gehiegi utzi zituelako. Tajuzko Arau Subsidiarioak izan zitzaizkiren Hernanik, gauzak behar baino azkarrago konpondu behar izan ditugu, eta guk nahi baino parte hartze eta kontraste mugatuagoa ekarri du, legeak dioena bete dugun arren». II

Hernanik
kronika

GABONETAKO ZOZKETA 2010

Hirugarren saskia osatu dugu!!

Laugarren saria ere badugu !!

HERNANI BIDAIK-ek eman duen saria:



HOTEL VILLA DE LAGUARDIA Ara ESKAPADA

BI LAGUNENTZAT

- GAU BAT + ONGI ETORRIKO AFARIA -
- VILLA LUCIA ARDOAREN ZENTRO TEMATIKORA BIXITA -
- BODEGAREN BIXITA ETA ARDO DASTAKETA -
- WINE OIL SPA ZIRKUITUA -

Errifak erosteko azken eguna, abenduaren 22a



Migranteen eguna ospatzen da abenduaren 18an, NBEk Migratutako langileen eta beraien familien eskubideen alde, akordio internazionala onartzea lortu zuela gogorazteko. Bere sorreratik, AMHER elkarteak etorkinen alde lanean aritu da Hernanin.

Egun berezia da gaurkoa bai elkartearentzat eta baita etorkinentzat ere, eta ospatzeko, bi ekitaldi antolatu dituzte: bideo emanaldia eta etorkinekin mahai ingurua. Helburua da herritarrek etorkinen bizipenak lehenengo pertsonan ezagutzea

Etorkinak protagonista gaur Hernanin, Migranteen Nazioarteko Egunean

Dani Llopis Irazusta

MIGRANTEEN Nazioarteko eguna da gaur, eta ospatzeko, bideo emanaldia eta mahai ingurua izango dira gaur Biterin, 17:00etan. AMHER elkarteak antolatu du, Hernanin etorkinen eta hernaniarren artean lankidetzaz, elkartasuna eta integrazioa bultzatzeko jaiotako elkarteak.

NBEk 1990eko abenduaren 18an onartu zuen Migratutako langileen eta beraien familien eskubideen aldeko akordio internazionala. Urteurrena 2000garren urtetik aurrera ospatzen da, akordioa sinatu zen egunetik.

Bideo emanaldia eta mahaingurua, Biterin

Biterira hurbiltzen direnek Maitena Salinasen *Pangea* pelikula izango dute ikusgai lehenengo. SOS Arrazakeriak ekoiztutako bideoa da, Gipuzkoa Solidaria ekimenerako. Erreportai formatuan, elkarriketa bidez, Gipuzkoan bizi diren hainbat etorkinek bere bizipen, testigantza eta istorioak kontatzen dituzte.

Ildo berean jarraituta, eta kasu honetan Hernanira ekarrita, herrian bizi diren bost etorkinek mahaingurua egingo dute pelikularen ostean. Kasu honetan ere, Hernanira etorritako etorkinek beraien bizipenak kontatuko dituzte. Hortaz, herritarrek euren bizilagun diren pertsonen istorioak ezagutzeko aukera



Horten Baños, Damian Pedrosa eta Lucia Arias AMHEREko kideak, hurrenez hurren.

Gaurko ekitaldian bideo emanaldia eta mahaingurua izango dira: lehenengo Maitena Salinasen 'Pangea' izango da ikusgai eta horren ondoren, Hernanin bizi diren bost etorkinekin mahai ingurua egingo dute beraien bizipenak ezagutarazteko. Ekitaldia 17:00etan hasiko da Biterin.

izango dute: Yamilethek (Kolonbia), Ibrahimek (Mali), Fatimak (Maroko), Damianek (Argentina) eta Mariak (Ekuador) emango dute bere bizipenen berri. Mahainguruko protagonistek, mintzagai izango dituzte euren bizitzako hainbat pasarte, hala nola: migratzeko erabakia hartu izana, nola erabaki zuten Hernanira etortzea, bidea nola egin zuten, edo zer nolako zailtasunak aurkitu

zituzten honera iristerakoan.

Etorkinak herrian duten garrantziaz ohartzea, helburu

Helburua, hernaniarrak etorkinen larruan jartzea da, hau da, etorkinen sufrimendu, preokupazio eta itxaropenak ezagutzea, eta horren ondorioz, gure herriaren garapenean duten garrantziaz ohartzea: «helburua da, etorkinek eta hernaniarrek euren

esperientziak konpartitzea, eta beraien arteko gerturatzea bultzatzea» dio AMHEREko Horten Bañosek.

Aholkularitza, AMHEREk jardun nagusia

AMHER, Hernaniko asoziazio multikulturala, 2002an sortu zen. Udaletxeak ikerketa bat egin nahi zuen inmigrazioaren inguruan eta hainbat hernaniar eta etorkin konbokatuta zituen bilera ba-

tzuetara. Bilera horietan erein zuten elkartearen hazia, zenbait etorkinek, gehienak Ekuadorekoak, integrazioaren alde elkarte bat sortu nahi zutelako: «pixkanaka hauek utzi egin zuten eta gu geratu ginen, bilerak egitera ohituta geundenak. Krisi txiki bat pasa genuen, gu baina beranduago etorritako etorkinak utzi egin zutelako, baina aurrera egitea erabaki genuen» dio Damian Pedrosa AMHEREko kideak.

Nahiz eta kide gehiago izan, normalean 10-15 bat kide biltzen dira bileretan, Transpacarren duten lokalean. AMHEREko Horten Baños pozik agertu da elkarteak duen inplikazio mailarekin: «AMHEREkin, bileretara jendea hurbiltzea lortu dugu, eta horrekin batera, inplikazio maila altua duen talde zabala osatzea ere lortu dugu. Askok elkartearen eguneroko lanean parte hartzen ez badute ere, antolatzen ditugun ekintzetan asko laguntzen dute».

Sentsibilizazioaren arloan egiten duten lanaz gain, etorkinen aholkularitzan du AMHEREk eguneroko jardun nagusia. Etorkinek aurki ditzaketen arazoei soluzioak ematen saiatzen dira, Ane Iturbe AMHEREko kidearen esanetan: «egunerokotasunean aurkitu ditzaketen behar eta arazoei irtenbidea bilatzen saiatzen gara. Lana bilatzea, formazioa,

TELEMAR

Elkano kalea 13 - Nagusia 7 - HERNANI -



Telefonikako banatzaile ofiziala

Orain Telemarren

Erosi eta plazoka ordaindu dezakezu, inongo interesik gabe, eta gainera, OTSAILETIK aurrera hasiko zara ordaintzen.

Ez galdu aukera hau!
aldatu zure elektrogailua edo telebista.

40 urtetik gora zure zerbitzura

etxebizitza, erroldatzeak edota arazo legalak konpontzea izaten dira gehien tratatzen ditugun gaiak».

Ekadorekoak eta Marokokoak dira Hernaniko etorkin gehienak

2009ko datuen arabera Hernaniko populazioaren %5a dira etorkinak. Komunitaterik haundiena Ekuadorekoa da, eta tarte gutxiarekin, bigarren herrialde nagusia Maroko da. Errumaniarrak eta Kolonbiarrak izango lirarteke hirugarren eta laugarren komunitaterik jendetsuenak Hernanin, hurrenez hurren.

AMHERretik adierazi dutenez, azken urte hauetan, krisi urte hauetan, bortizkien kolpatutako kolektiboetako bat ari da izaten etorkinena. Halere, ez da nabaritu gehiegizko igoerarik kontsulta kopuruan: «egun batzuetan gehiago eta beste batzuetan kontsulta gutxiago izaten dira. Batzuetan beste egunero etorkin batek eskatzen du aholkua AMHERen» dio Ane Iturbek.

Krisi ekonomikoak etorkinena ilundu die etorkinei, eta AMHERen esanetan, Gobernuak ere izan du zerikusia egoera honetan. Gobernuak proposatutako irtenbideetako batzuk kritikatu ditu elkarteak: «jatorrizko herrialdeetara buelta egitearen apostua egin dute Gobernutik. Paroarekin kobratu behar luketenarekin, bueltako bidaia ordaintzea eskaintzen diete, baina arrakasta gutxi izan dute. Etorkinek bere bizia hemen antolatu dute eta gehienek hemen bizitzaren aldeko apostu sendoa egin dute» dio Horten Bañosek.

AMHEReko kide honen esanetan ezin da dudari jarri etorkinen ausardia. Horten Bañosen ustez «oso ausarta izan behar da bizitza atzean utzi eta inkognitaz beteriko etorkizunari aurre egiteko». Etorkinei laguntzeko eta sentsibilizazioaren bidean lanean jarraitzeko gogotsu jarraituko dutela azaldu dute AMHEReko kideek. Etorkinentzat erreferente bihurtu dira eta instituzioek ere kontuan hartzen dute, edozer gauza egin edo antolatzeko. Pedrosaren ustez, «lan onaren eta konfiantzaren ondorio da hau». II

Sentsibilizazioaren bidetik, herria girotzen

Gero eta ekitaldi gehiago antolatzen ditu AMHERek, herria girotzeaz gain, etorkinen beharrak aldarrikatzeko. Gastronomi jardunaldiak eta aste multikulturala Hernaniko bizitza kulturalaren ohiko ekintza bihurtu dira, besteak beste.

AMHERek bi arlotan banatzen du bere jarduna batetik etorkinei eskaintzen zaien aholkularitza zerbitzuan, eta bestetik, publikoki egiten diren sentsibilizazio ekintzetan. Ekimen kulturalak izaten dira hauek, etorkinen inguruan herritarren ezagutza haunditzeko. Modu honetan herritarrek sentsibilizatzea bilatzen dute, etorkinen problematikaz jabetu daitezela.

Ekimen hauetako asko Hernaniko bizitza kulturalan ohiko bihurtu dira. «Fijoak diren lau ekimen ditugu, eta noizean behin ezohiko ekitaldiren bat antolatzen dugu aukera sortzen delako», dio Horten Baños AMHEReko kideak.

Orain dela urte batzuk SOS Arrazakeria elkartearen sartu zen AMHER. Eta honek, aholkularitzak dakartzen arazoetan laguntzeaz gain, bestelako hitzaldiak edo bideo emanaldiak antolatzeko aukera gehiago eman die. SOS Arrazakeriak, AMHER baino elkarte haundiagoa izanik, hizlariak edo ekimenak antolatzeko baliabide gehiago ditu: «akordio oso baliagarria eta ona izan da eguneroko jardun guztietarako».

Lau-bost ekitaldi nagusi, urtean

AMHERek antolatzen dituen ekimen finakoak dira, Aste Multikulturala, Jardunaldi Gastronomikoak, Zine Zikloa eta San Joanetako gune berezia eta kontzertuak.

Festa gastronomikoak seigarren edizioa bete du aurtengoan, eta arrakasta handiko jai bihurtu da. Udaberriaren antolatzen dute eta etorkinak asko inplikatzeko dira jai



AMHERek antolatzen duen kultur arteko jardunaldi gastronomikoa.

honen antolakuntzan. Etorkinek bere jatorrizko herrietako jaki ohikoak prestatzen dituzte, gerturatzen diren gozamenerako.

Aste Multikulturala da AMHERren ekitaldi nagusienetakoa, eta ekimen gehien dituen ere bai. Egun horietan, hitzaldi eta bideo emanaldiez gain, umeentzako aktibitate ugari antolatzen dituzte.

San Joanetako gune berezia ere izaten du bere protagonismoa elkarteak, Plaza Berrin jartzen duten gune bereziarekin. Eta horrez gain, urtean zehar zenbait kontzertu ere antolatzen dituzte. Zine Zikloarekin ere jende dexente biltzen dute; beti ere inmigrazioaren gaiarekin lotura duten filmeen inguruan izaten da.

«Jendearen erantzuna, orokorrean positiboa»

Pozik ageri da AMHER elkartearen antolatutako ekitaldien erantzunarekin: «Orokorrean

pozik gaude. Aldakorra izaten da jendearen erantzuna, batzuetan jorratzen ditugun gaiekin asmatzen dugu eta beste batzuetan ez. Datarekin ere ez dugu asmatzen zenbaitetan. Adibidez, aurtengo San Joanetako aurretik antolatu genuen kontzertuan ez zegoen apenas jenderik. Realairekin partidu batekin koinziditu zuen eta herrian ez zegoen inor. Laizismoaren inguruan antolatu genuen hitzaldian, ordea, aretoa txiki geratu zitzaigun. Gainera hitzaldi horrekin motz geratu ginenaren sentsazioa izan genuen, eta espero dugu etorkizunean gai hori sakondu ahal izatea beste ekitaldiren batekin» dio Horten Bañosek.

‘Kaixo’ aldizkariak 3 urte

Etorkinentzako aldizkari bat ere kaleratzen du AMHER elkarteak, *Kaixo* izenekoak, eta 12 ale kaleratu dituzte dagoe-

neko. Aldizkaria postaz banatzen zaie etorkinei, urtean lautan, eta AMHERen lanaren berri emateaz gain, inmigrazioarekin lotura duten gaiak jorratzen dituzte.

Azken aldian ere etorkinena eta hernaniarrekin afariak antolatzen hasi dira soziedadeetan. Hauek ere izugarriko arrakasta izan dute eta AMHEReko kideek afari horietara hurbiltzen den jende kopurua mugatu egin behar izan dute.

Guztiak izan duen erantzuna ikusita, Hernani girotzen, eta aldi berean, etorkinen inguruko problematikaren inguruan sentsibilizatzen jarraitzeko asmo sendoa agertu dute AMHEReko kideek: «Oraingoz lau-bost ekimen finako horiek mantentzeko asmoa dugu, eta horietatik kanpo beste ekitaldiak antolatzen saiatzen jarraituko dugu». II

GARAYAR AVTOBYSAK



Zerbitzu diskrezionalak
(ESKOLARRAK)

Autobus zerbitzua
Linea erregularrak

Hernani - Aiete - Donostia - Aiete - Hernani
Andoain - Urnieta - Hernani - Donostia - Hernani - Urnieta - Andoain

Jaregi bailara 17 - Tel.: 943 556 658
Fax: 943 331 208 e-maila: mgarayar@facilnet.es 20120 Hernani (Gipuzkoa)



mikel armendariz

proiektu eta instalazio
elektrikoak

Tel. 649 846 422
HERNANI

IRUBIDE JATETXEA



Enkarguzko janak

Gordetako jantokia

Eguneko menua

Asteburuko menua

Karta

IRUBIDE Jatetxea - Epele auzoa 7 - Hernani - © 943 552 480

◆ ERREMONTA-AZYSA BINAKAKO TXAPELKETA NAGUSIA

Azyza Binakako Txapelketa Nagusiko final haundia jokatuko da gaur Galarretan, Zeberio eta Ion gipuzkoarren eta Urriza eta Etxeberria III nafarren artean: Zeberioek zazpigarren txapela du helburu; Urrizak laugarren finala

jokatuko du jarraian, eta irabaziz gero hirugarren txapela jantziko du; Ion eta Etxeberria IIIak bigarren finala dute gaur, baina oraingo ez dute txapelik jantzi; aurrenekoa eskuratzeko lehian ariko dira gaur.



Lau erremontistak, finalerako pelotak aukeratuta.

Zeberioaren klasea edo Urrizaren ratxa?

ERREMONTAIAK egun haundia du gaurkoa. Azyza Binakako Txapelketako final haundia jokatuko da gaur Galarretan. Gipuzkoako bikotea eta Nafarroako izango dira aurrez aurre, Zeberio IIa eta Ion, eta Urriza eta Etxeberria IIIa hain zuzen. Partidua arratsaldeko 16:00etan hasiko den jaialdiko bigarrena izango da, eta frontoira joaterik ez dutenek, EITBn zuzen-zuzenean ikusteko aukera izango dute.

Esperientzia haundiko bi erremontista

Bi bikoteek dute gauza bera komunean: esperientzia haundiko erremontista bat. Gipuzkoarren bikotean, Zeberio IIak binakako txapelketako sei final jokatuko ditu, eta seietan jantzi du txapela; gaurkoan, helburu berarekin jokatuko du finala. Nafarren kasuan berriz, bolada ezin hobea darama Urrizak. Orain lau urte jokatuzuen binakako txapelketako aurreneko finala, eta ordutik jokatuz diren laueta izan da.

Batean huts egin eta hiru txapela eskuratu ditu, gaurkoan, bolada onari jarraipena emateko asmotan izango da Galarretan.

Best bi erremontistek final bana jokatuz dute, eta azpitxapeldun titulua dute palmaresean. Biek adierazi dutenez, hainbeste desiratutako txapela gaur eskuratzeari espero dute.

Partidua oso berdindua izatea espero da

Adituen arabera, maila oso

paretsukoak dira bi bikoteak, eta ez dago protagonistarik. Txapelketako final laurdentan, Urriza eta Etxeberria IIIak irabazi zuten partidua bera, 40-38, partiduari buelta eman ostean. Gaurkoan ordea, zailago izango dute. Urriza eta Etxeberria IIIak Zeberio saihestea izango dute helburu, eta partidua pisua Ioni ematea. Zeberio eta Ion berriz, Etxeberria IIIa eta Urrutia partidutik ateratzen saiatuko dira, hau da, urduri jartzen. ||



Urriza eta Etxeberria III, pelota aukeraketan.

ORAIN ARTEKO TXAPELDUNAK

- 1943 Azpiroz - Iturain
- 1957 Irigoyen - Salsamendi III
- 1964 P. Lecumberri - Ugarte
- 1972 Ibero - Erro
- 1973 Raúl - Arizcuren
- 1974 Iriarte I - Ayerbe
- 1977 Pablo - A. Lecumberri
- 1978 Intxauspe - Ayerbe
- 1979 Iriarte I - Urteaga
- 1980 Iriarte I - Zestau I
- 1981 Aseginolaza I - Urteaga
- 1982 Raúl - Urteaga
- 1983 Ibero - Zestau I
- 1984 Gorri - Mujika
- 1985 Matxin II - Urteaga
- 1986 Elizalde - Agerre
- 1987 Elizalde - Agerre
- 1988 Noain - Agerre
- 1989 Prat - Mujika II
- 1990 Elizalde - Aizpuru
- 1991 Intxauburu - Agerre
- 1992 Elizalde - Eizagirre
- 1993 Arregi - Aizpuru
- 1994 Ezkurra - Eizagirre
- 1995 M. Lecumberri - Eizagirre
- 1996 Elizalde - Etxabe
- 1997 Altuna II - Etxabe
- 1998 Zeberio II - Aizpuru
- 1999 Ezkurra - Imaz
- 2000 Altuna II - Txikuri
- 2001 Zeberio II - Iriarte
- 2002 Altuna I - Eizagirre
- 2003 Zeberio II - Auzmendi
- 2004 Zeberio II - Urrutia
- 2005 Zeberio II - Auzmendi
- 2006 Ezkurra - San Miguel
- 2007 Urriza - Lizaso
- 2008 Urriza - San Miguel
- 2009 Zeberio II-Badiola

◆ ERRUGBIA

Partidu garrantzitsua bihar Hernanik BUC Barcelonaren aurka

Hernanik partidua garrantzitsua jokatuko du bihar 12:00etan, Landaren, BUC Barcelonaren aurka. Aurreko asteburuan irabazita, Hernanik Play Off-a jokatuko aukera badu oraindik, baina helburu hori lortzeko biharko partidua irabaztea oso garrantzitsua izango da. Irabazteko aukera haundia du Hernanik; izan ere, 5garren postuan da 23 punturekin; BUC Barcelona, berriz, 7garren 10 punturekin. ||

◆ SASKIBALDIA

Hernani bigarrenaren aurka gaur, etxean

Teklan Hernanik Easo Zahar-en aurka jokatuko du gaur, hau da, bigarrenaren aurka. 18:00etan izango da Hernaniko kiroldegian. Hernanik lidertza berreskuratzeko nahitazkoa izango du gaurko partidua irabaztea. Hernani hirugarren postuan dago aurreneko biekintzaren berdinduta. ||

Gaztetxoentzako saioak bihar goizean

Bihar, igandea izaki, 9-12 urte arteko gaztetxoentzako saskibaloia jardunaldi izango da Kiroldegian, goizeko 10:30etatik aurrera. ||

◆ ARETO FUTBOLA

Yone Boutiquek azkoitiarren aurka jokatuko du gaur

Yone Boutiquek kanpoan jokatuko du asteburu honetan ere. Azkoitiara joango dira gaur, eta bertan zain izango dute Zurte taberna taldea. Azkoitiarrak 7garren postuan daude, hemaniarrak baino postu bat beherago, hain justu, eta puntu baten alde dute. Hori horrela, irabazteko premiazkoa dela ikusten dute hemaniarrek, joan den asteburuan galduta, atzetik diren taldeak gerturatu egin baitzaizkie. ||

◆ ATLETISMOA

Salillasek 24 orduko proban hartuko du parte eta 200km baino gehiago egitea du helburu

Xabier Salillas CD Hernaniko atleta Bartzelonan izango da gaur-bihar bitartean, bertan jokatuko den 24 orduko lasterketan. Salillasek helburu du 24 ordu baino gutxiagotan, 200km egitea. Pistak 400 metro ditu, eta salillasek helburua lortzeko, 500 buelta eman beharko dizkio, gehi beste bat. Helburua betetzea zaila izango da hemaniarrentzat, psikologikoki 24 ordu leku berean egotea korrika ez baita erraza. Aurreko urteko irabazleak 234km egin zituen. ||

◆ PELOTA

Sei paletari hernaniar Gipuzkoako Txapelketako finalean gaur, Tolosan

Jubeniletan bi bikote hernaniar izango dira aurrez aurre: Irazustabarrena-Semper/Goikoetxea-Huizi. Senior bigarren mailan Gutierrez eta Perez atzelari hernaniarrek indarrak neurtuko dituzte. 16:00etan hasiko da txapelketa.

GAUR Emakume Pilotariko Gipuzkoako Txapelketako finalak jokatu dira Tolosan, eta bertan protagonista izango dira sei paletari hernaniar; modalitate honek herrian bizi duen garai onaren seinale. Jubenil mailako eta senior bigarren mailako finalak izango dira, 16:00etan Beotibar pelotalekuan.

Jubeniletan, partidu parekatua

Jubeniletan bi bikote hernaniar izango dira aurrez aurre: Amaia Irazustabarrena-Maidier Semper eta Miren Goikoetxea-Maidier Huizi. Oso partidu parekatua espero da. Maila horretako aurrelaririk onenak neurtuko dira eta estilo ezberdineko bi atzelari. Kolpe haundiagokoa da Semper, baina seguruagoa Huizi.

Seniorretan, bi atzelari hernaniar aurrez aurre

Senior bigarren mailako finalean bi atzelari hernaniar izango dira aurrez aurre. Eli Gutierrez



Eneritz Perez.

Lendinezekin arituko da eta aurkari izango ditu Eneritz Perez eta Bañales. Kasu honetan ere, norgehiagoka parekatua espero da eta partiduaren norabidea atzelariengan egongo dela aurreikusten da. Perez ziurrenik peloteoan nagusituko da, baina Gutierrez bere teknikarik onenaz baliatuko da aurre egiteko.

Gipuzkoako eta Hernaniko Txapelketako lau partidu Hernanin, gaur

Hernanin bertan ere izango da

pelotaz gozatzeko aukera gaur. Gipuzkoako eta Hernaniko Txapelketako partiduak jokatu dira, 14:15etatik aurrera. Gipuzkoakoak: alebinetan eskuz banaka, Manex Noble-Intza; infantiletan eskuz banaka, Suhari Rodriguez-Zestoa eta Oiarpe-Iker Loiarde; jubeniletan paletan, Gorrotxategi-Contreras/Intxurre. Hernaniko 4 eta erdiko txapelketan: seniorretan eskuz banaka, Xabi Errasti-Markel Lizeaga.

Trinketean 7 partidu kanpoan, gaur eta bihar

Gipuzkoako Txapelketan, trinketean, 7 partidu jokatu dira asteburuan: kadeteetan, Hodei Noble-Intza eta Egoitz Altuna-Urnieta gaur Lasarten, 09:15etan; jubeniletan, Jon Etxegoien-Urnieta eta Ander Lopez-Oiarpe bihar Iruran, 09:15etan; seniorretan, Eñaut Esnaola-Urribil gaur Iruran, 15:00etan, eta Mikel Zurutuza-Gazteleku eta Aritz Otaegi-Loiolatarra gaur Artelekun, 13:15etan. ||

◆ FUTBOLA

Erregionalek gaur Anaitasunari irabaztea komeni, lidertzari eusteko

Erregional Ohorezko mailan, Hernanik bigarrenaren aurka, hau da, Anaitasunaren aurka jokatu du gaur. Zubipen izango da 16:00etan. Hernanik gaur irabazita lidertzari eutsiko dio, galdu edo berdintzen badu, ordea, lehen postua galtzeko arriskua izan dezake; izan ere, Anaitasuna eta Pasaia puntu baten aldearekin ditu atzetik. ||

Emakumezkoen Ligan, Hernanik partidu erraza du gaur eta irabazita, lider jarriko da

Emakumezkoen Ligako taldeak azkenaren aurka jokatu du gaur, 17:15etan, Michelen. Partidu erraza espero da Ostadar azkena baitoa sailkapenean eta jokatu du 11 partiduetatik 10 galdu ditu eta bat berdindu. Hernani bigarren postuan dago 23 punturekin eta Zarautz dauka aurretik 25 punturekin. Hernanik irabazten badu, lidertza kenduko dio Zarautzi, asteburu honetan ez baitu partidurik. ||

◆ BOLEIBOLA

Hernanik Lankide izango du aurrez aurre gaur, Gasteizen

Hernanik sailkapenean azken postuan dagoen Lankideren aurka jokatu du gaur, 19:00etan, Gasteizko Aranalde kiroldegian. Partidu honekin, ligako lehen itzuliri amaiera emango diote hernaniarrek. ||

◆ JUDO A

Erakustaldia eta Gipuzkoako Txapelketa gaur eta bihar, Hernanin

Judo ekitaldi ezberdinak izango dira asteburu honetan Hernanin. Gaur, judo elkarteko txikien (6-10 urte) erakustaldia izango da, 16:00etatik aurrera. Bihar berri, Gipuzkoako Txapelketa. Infantilak eta taldeka lehiatuko dira 09:30etatik aurrera. Goizeko 11:00etatik aurrera, berri, alebinen lehenengo Eskola Kirola jardunaldia izango da. Bertan, Hernaniko 20 haurrek hartuko dute parte. ||

◆ BOLA

Tiraldia Zerainen, gaur

Olentzero Sariko bola jaialdia izango da gaur, Zerainen. Arratsaldeko 16:00etatik 17:00etara izango da. Sariak lehenengo lauztat izango dira. Jaialdiaren bukaeran, urdaiazpiko eder bat zozketatuko da partehartzailer guztien artean. ||

KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA		PELOTA-Emakume Pilotari	
Freg. Oh. Maila	Hernani Anaitasuna	Zubipen	Gaur 16:00
Emak. Liga	Ostadar-Hernani	Michelen	Gaur 17:15
Erreg. 1go maila	Hernani-Urribil	Zubipen	Gaur 18:00
Kad. Oh. Maila	Hernani Ondarra	Zubipen	Gaur 17:15
Kad. 1go maila	Hernani-ekintza	Zubipen	Gaur 10:30
Infantil Oh. Kopa	Vasconia Hernani	Puion	Gaur 17:00
Infantil. Txiki	Real Sociedad Hernani	Zubietan	Gaur 10:30
Infantil. Parte-har	Hernani Pasaia	Zubipen	Bihar 17:00
Alebinak	Reasain Hernani	San Juanen	Bihar 09:30
ERRUGBIA		PELOTA-Hernaniko Lauterdiko Txapelketa	
Senior A	Hernani BUC Barcelona	Sen. Fskuz	Xabi Errasti Markel Lizeaga
Jubenila	Hernani Ordizia	Sen. Fskuz	
Infantil 16	Hernani Atletiko SS	Sen. Fskuz	
ARETO FUTBOLA		ERREMONTA	
1go maila	Zuri taberna Yone Boutique	1. partidu	Fndika Garbelu/Zulaika Barrene. IV
BOLEIBOLA		2. partidu	Binakako T.N. Zeborio II-Iori/Urriza-Clucberria III
Seniorrak	Lankide Hernani	3. partidu	Ezkurra-Lizaso/Juaristi-Urrutia
Kadeteak	Izardi Hernani	4. partidu	Urtasun-Zubizarra/Malxin III-Aizpurua II
SASKIBALOA			
Seniorrak	Hernani-Caso Zahar	Kiroldegia	Gaur 18:00
Jubenila	Urola-Hernani	Urrebu	Gaur 12:00
Kadete A	Irangui-Hernani	Azpelia	Gaur 11:15
Kadete B	Hernani-Easo Zahar	Kiroldegia	Gaur 16:00

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

I. URTEURRENA Jose Jaime Gomez Martin "Txino"



KATANGAKO LAGUNAK

Hernanin, 2010eko abenduaren 18an

FUNERARIA ORBEGOZO ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20



www.funerariaorbegozo.com



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala HERNANI
Latxunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

TELEFONAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
● FARMAZIAK ● Egunez: Aizpuru Latsunberri 11 - 943 336077 ● Gauez: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Giro lasaia izango da, tenperatura igo egingo da eta giro eguzkitsua izango da. Temperatura max. 8-10°C-ren inguruan ibiliko da, eta min. 3°C inguruan.

BIHAR Egoera egonkorrekin jarraituko dugu. Erdi mailako lainoak eta goi mailakoak izango dira eta eguzkia ere aterako da. Max. 12°C eta min. 3.

(euskaime)



◆ AEK



Proiektua bururatu eta martxan jarriko duen AEKko ikasle taldea.

Atsegindegi, euskeraren topaleku

Euskeraz hitz egiteko aukerarik edo denborarik ez dutenentzat proiektu berria jarriko du martxan AEKko ikasle talde batek. Atsegindegin arratsaldero izango da euskeraz aritzeko aukera, 16:00etatik 20:00etara.

ASKO dira denbora faltagatik, ordutegi arazoengatik edota bestelako arrazoiengatik euskera ikasteari utzi diotenak. Eta horri erremedioa jartzeko asmotan, AEKko ikasle talde batek AEGI (Atsegindegiko Euskera Gune Iraunkorra) proiektua jarri du martxan. Aurkezpena abenduaren 27an egingo dute, 16:00etan, Atsegindegin. Proiektu honi esker, euskera praktikatu nahi duten

herritarrek egunero izango dute aukera Atsegindegin. Arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara norbait egongo da bertan, hurbiltzen direnekin euskera praktikatzeko.

Idea AEKko ikasle talde batena izan bada ere, Udal Euskaltegiarekin, eta Hernaniko beste hainbat talderekin ere hitz egin dute, eta hauek ere azaldu dute bere aportazioa egiteko konpromisoa. ||

Honera etorri gera ekimen bat aurkeztera lotsa gabe esateko euskara ikasle gara. Bururatu zaigu gauza bat orain goaz azaltzera gune euskaldun iraunkor bat goaz irekitzera. Zuen laguntza behar dugu hobetzeko gure hizkera mintza praktika eginda ikas dezagun batera zahar gazte ta nerabe alda dezagun jarrera hori da gure asmoa zabaldu ta indartu euskera.

◆ ZINEA

'Twon' eta 'Aprendiz de brujo', asteburuan

Helduentzako *Twon* (*Ciudad de ladrones*) izango da ikusgai gaur 19:30etan eta 22:30etan, eta bihar 19:30etan. Publiko guztiarentzat, beriz, *Aprendiz de brujo* emango dute gaur eta bihar, 17:00etan. ||

◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

- Etxebizitza alokagai Ereñotzun, baserri batean. Toki lasaia eta eguzkitsua. 80m2 (600€). Deitu: 636 627 462. Pisu bila nabil alokairuan, Hernanin. 2 logela eta berogailua (ingenieroa: solbentzia eta seriotasuna). Deitu: 600 609 754.
- Garaje itxia alokagai, Zinkoenean. Deitu 677 513 257
- Kapritxozko etxea salgai Santa Barbara auzoan. 3 logela, 3 komun, saloi handia, sukaldia. Behean soziedadea eta ganbara logela bihurtuta, komunarekin. Garajea (3 kobxe).Prezio negoziagarria eta erreztasunak ordaintzetan. Deitu: 629 682 827.
- Audi TT FSI salgai (2000cc, 2007urtekoa). Oso egoera onean, beti garajean. 26.500€. Deitu: 658 058 330.
- ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
- Enara Goikoetxea.Terapia energetikoak, Kristaloterapia, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reikia, Tarot terapeutikoa. Tel.: 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)
- YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak. "Fotorejuvenecimiento". Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.
- Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalen garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)
- Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

18an babesa eman!

Abenduak 18 GIZA KATE ERRALDOIA

Hernaniko kaleetan
13:00etan Plaza Berrin

orain! Legalizazioa

Gora ezker abertzalea!

Vanesa eta Miguelo
Harategia eta aurrez egindako janaria

ADI !!! ADI !!!

EZ UTZI AUKERA PASATZEN
EGIN ITZAZU ZURE ENKARGUAK
ETA GOZATU GABONAK !!!

BAKAILU KOKOTXAK
BAKAILUA SALTSAN
ARRAI ZOPA
TXIPIROI BETAOK
OLAGARROA
LEGATZ PASTELA
PORRU ETA GANBA PASTELA
PATEA ETA ENBUT. BARIETATEA

ABENDUAK 25
ETA URTARRILAK 1
IREKITA: 10:30 - 14:00
eta OGIA enkarguz !!
ZATOZ !!

ERREAK ENKARGUZ:
ARKUMEA
TXERRIKUMEA
OILASKOA
UKONDOA
AHATEA
ANTXUMEA
KROKETA BARIETATEA

Larramendi, 17 - HERNANI Enkarguetarako: 943 55 03 32

Allianz

ASEGURUAK

- bizitza
- istripuak
- ibilgailuak
- etxeak
- komertzioak
- enpresak
- ardura zibila
- finantz aseguruak
- inbertsioak

agustin ezponda irizar
agentzia

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

ERRETIRO ASEGURUAK

ZATOZ GALDEZERRA!!

BGAE

MAPFRE

LEKU ALDAKETAK eta ASEGURU BERRIAK
SARIAREKIN:
GABONETAKO SASKI EDER BAT
edo KAFE-MAKINA BAT

* ESKAINTZA HONEK BULEGO HONETAN BAKARRIK BALIO DU.

HATOR
AHOLKULARITZA

943 55 43 12
Kardaberaz 60 behea - Hernani